



Argiaren kultura

Joxerra Aizpurua Sarasola*



Telematika, telefonia eta informatikaren arteko elkarketatik sortutako zientzia da. Denbora luzean zehar, datu informatikoak transmititzeko baino ez da erabili, izan ere zeuden bitartekoekin ezin baitzen beste gauzarik egin.

Euskal Komunitate Autonomoan gas naturala gero eta leku gehiagoetara ailegatzen ari da. Makina bat kale eta errepide zulatu da eta zulatzen ari dira tutueriak sartu ahal izateko. Baina tutueriak sartzen ari diren kanalizazioan zuntz optikozko sarea ere sartzen ari direla oso jende gutxi daki.

Zuntz optikoa komunikazioetarako erabiltzen den materiala da. Bitarteko honetaz informazioa (datu informatikoak, filmeak, telefonozko elkarrizketak, etab.) garraiatzeko, informazioa argia bihurtzen da eta helburura heltzen denean alderantzizko bihurteta egikaritzen da. Zuntz optikoak bi desberdintasun nagusi ditu ohizko kobrezko kablearekin alderatuz. Batetik, kabletik zirkulatzen duena argia da eta argiaren abiadura gaitutuko duen gorputzik naturan ezagutzen ez denez, informazioaren zirkulazio-abiadura naturan lor daitekeen handiena da. Bestetik, zirkulazio-ahalmena dago, hau da, informazio-butxadurak gertatzea ia ezinezkoa da, eta horregatik eta aipatutako ezaugarriagatik zuntz optikoek informazioari benetako autopista eskaintzen diotela esan daiteke.

Zuntz optikoak komunikaziorako (eta, beraz, garapenerako) eskaintzen dituen posibilitateak ikusirik, Eusko Jaurlaritzak komunikazio-azpiegituraz arduratzeko Euskalnet enpresa sortu zuen. Enpresa honen lehen eginkizunetakoa Euskal Komunitate Autonomoan zuntz optikozko sarea zabaltzea izan zen eta jada sare nagusiak euskal komunitate autonomoko hiru hiriburuak lotzen ditu.

Sareen ustiapena hasia da jada; Eusko Jaurlaritzak Bilbon, Gasteizen eta Donostian dituen zerbitzuak lotzen ari baitira. Hemendik urte-pare batera enpresak lotuko dira sare-ra eta azkenik, bost urtera gutxi gora-behera, etxe partikularrak. Aipatu saretik telefono- eta telebista-zerbitzuak ezezik, banketxeekiko harremanak, dendetako erosketak edo produktu elektronikoen inguruko zerbitzuak (entziklopedia elektronikoak, programa informatikoak, bideojokoak, etab.) ere eskainiko dira.

Etxeko sarreran kokatuko den bit-kontadore batek markatutakoaren arabera ordainduko dugu, ura edo gasa ordaintzen dugun gisa.

Azpiegitura horri esker Euskal Komunitate Autonomoa informazio elektronikoaren alorrean aitzindari bihurtu daiteke Europan eta aitzindari horren islada ekonomian ezezik gizarte-ohituretan ere nabari daiteke. Sarean zirkulatuko duen informazioa eskaintza eta eskaeraren arabera izango denez, euskaldunok ahalegin berezia egin beharko dugu zerbitzuak euskaraz ere eskaini ahal izateko. Bestela, beste kultur kolonizazio baten atarian izan gaitezke eta txanda honetakoa historioan jasan ditugunetan gogorrena izan daiteke.

Zerbitzuak euskaraz eskaintzeko ahaleginak elkarlanean jarri behar ditu administrazio publiko zein pribatuak eta, hortaz, ikerketa generikoekin batera zerbitzu erabilgarriak, nahiz eta hasieran apalak izan, martxan jarri behar dira.

Kultura berri baten aurrean gaude eta euskaldunak ez gaude gaizki kokatuta. Beraz, aprobeitza dezagun aukera.



* Industri injinerua.